

GARAPEN SOZIO EKONOMIKOA: EUSKAL GIZARTEA ETA ENPRESA

II MINTEGIA: EKONOMIA BERRIAK DINAMIKAREN ONDORIOAK



SARRERA

“Garapen sozioekonomikoa: euskal gizartea eta enpresa” proiektuaren baitan, Ekonomia Berriei buruzko II. Mintegia burutu zen irailaren 29an, Bilbon.

Bertaratu zirenek “Beste ekonomia batzuetarako trantsizioa(k)” izenburuko txosten bat irakurri ahal izan zuten aurretik, eta Mintegiaren lehen zatian, txosten horretan azaldutako ereduei buruzko hainbat hitzaldi eman eta eredu horiek aplikatu zituzten enpresen kasuak azaldu ziren.

Orrialde hauetan, Mintegiaren bigarren zatiko lan-dinamikaren laburpen bat dago jasota. 3 galdera egin ziren:

1) EREDU TEORIKOEI BURUZ

Zein ereduk uste duzu izango dutela garapen haundiago bat? Zer dute amankomunean, eta zein bateraezintasun?

2) ESPERIENTZIA PRAKTIKOEI BURUZ

Zure ustez, zein ekarpen egiten dute esperientzia hauek gure ekonomian? Uste duzu praktika hauek aplikagarriak direla beste sektore eta enpresa batzuetan? Ze aukera aurreikusten duzu?

3) PROPOSAMENAK GURE EKONOMIARENTZAT

Zein ekimen, proposamen eta politikak gauzatu daitezke eredu hauek praktikan aplikatu daitezen?

Jendearen artean, profil eta ideia desberdinak eta askotarikoak zeuden. Batzuek energia handia erakutsi zuten sistema erreformatzeko; beste batzuek, berriz, nolabaiteko mesfidantza agertu zuten korrante berrien inguruan. Hala eta guztiz ere, adostasun handia ikusi zen gehien zabalduko diren ereduak zein diren erantzuterakoan eta aurkeztutako esperientzien izaera berritzaile eta aurrerakoia eta eredu gisa duten balioa baloratzerakoan. Oro har, alternatibak bultzatzeko une egokiaz eta gizarte-premiei eta ingurumen-premiei erantzungo dien ekonomia pluralagoa eta askotarikoagoa eraikitzeko borondateaz jabetuta zegoen jendea.

Gai bakoitzaren inguruko ondorio nagusiak azalduko ditugu ondoren.

EREDU TEORIKOEI BURUZ

Zein ereduk uste duzu izango dutela garapen haundiago bat? Zer dute amankomunean, eta zein bateraezintasun?

Ereduek Amankomunean dutenaz

Iritzi orokorra izan zen ez direla hainbeste eredu, izen desberdinak egon arren eta bigarren mailako ñabar-dura batzuk gora-behera antzeko proposamenak egiten dituztela horietako askok. Horrela, nahiz eta batzuk partzialagoak izan edo arlo zehatz bati buruzkoak, eta beste batzuk integralagoak, gehienak elkar lotuak daude neurri batean.

Eredu hauek amankomunean dituzten ezaugarriak aipatzerakoan, hauek egungo ekonomiak dituen desafi-oeekin lotzen dira, hau da, egungo ekonomiak erantzuten ez dituen behar batzuekin lotzen dira, ondorengo hauek:

- **Logika ekologikoa** = Jasangarritasuna, errekurtsoen efizientzia bilatzea, planetaren muga biofisikoak kontutan izatea eta garapen iraunkor bat helburu izatea
- **Ekonomia pertsonaren zerbitzura** eta beharretara jartzea
- **Ekonomia bera ulertzeko beste modu bat** proposatzea: distributiboa, kolaboratiboa, kooperatiboa, soziala edota solidarioa. Kasu batzuetan ekonomia ez-monetarioa kontutan hartzen dute eta honen inpaktua azalerratu nahi dute (feminista, kasu)
- **Lokaltasuna**: Ikuspegi globaletik lokalera egiten dute

Ondorioa da, ereduek asko dutela amankomunean, eta multzokatu daitezkeela ondorengo 4 multzo nagusi-tan.

Garapen haundiena izango duten Ereduak (eta euren arteko multzokatzea)

- 1) **Ekonomia Zirkularra, Urdina eta Berdea** = Logika ekologikoari erantzuten die. Ingurumena eta muga biofisikoak kontutan hartzen dituzte. Eredu hau industrian aplikatu beharko litzateke, horretarako industriak kolaboratu behar duelarik. Europar eredu hauek garapen haundia izaten ari dira. Danimarkan bada industria eredu zirkularrekin funtzionatzen. Hemen oraindik ez dugu kulturarik, ezta know how-rik ere, baino beharra izango da hauek garatzeko. Ildo horretatik, ondorengo gomendioak egin ziren:



- Ikerketa eta garapena bultzatu ekonomia hauen inguruan: Materialetan, teknologian, eta injenieritzan. Horretarako, Unibertsitate potenteeekin akordioak eta sareetan parte hartu
- Antolaketa modu berriak garatu behar dira. Arlo horretan ere ikerketa eta esperimentazioa beharrezkoak dira
- Langileen prestakuntza sustatu
- Ekosistema industrialak sortu. Horretara iristieko, esan den bezala, Know how-a behar da

2) **Ekonomia sozial eta solidarioa** = Eredu hauek pertsonak eta justizia soziala ardatz nagusi gisa hartzen dute, balio sistema batekin baita gobernantza eta antolaketa eredu desberdinekin, inpaktoa pertsonetan eta ingurunean kokatuz. Bere muinean dakarten esanahiagatik eta bultzatzen dituzten eraldakuntzen sakontasunagatik zailago ikusten dira gaur egun nagusi den ereduan, baldintza zailagoak dituzte benetako garapen integralak lortzeko epe labur/ertainean.

Multzo honetako ereduiei buruz atera diren beste ideia batzuk:

- Ekonomia sozialak Euskal Herrian duen presentzia eta potentzialtasuna (oso errotuta dagoen enpresa eredua) aztertu, kontuan hartu eta landu beharreko ildo da. Iraungo duen modeloa kooperatibena izango da, baina distinkzio bat egin behar da zaharren eta eraberrituen artean. Kooperatiba zaharrena beste mundu bat da eta dauzkaten arazoak ezberdinak dira (partiehartzearen munduan ez dute aurrera egin) eta eraberrituek komunitarismoa indartu behar dute.
- Komunitateen antolakuntza sozial, solidario, partekatu horretatik asko duen bertoko beste praktika bat: AUZOLANA, interesgarria izan daiteke gure kontzeptu propio hori berreskuratzea
- Ekonomia feministak beste urrats bat ahalbidetzen du, produkzio- eta ugalketa-eremua eta Europako gizarte zahartuan (gero eta zahartuagoan) beharrezkoak diren zainketak orekatzeko premia kontuan hartuta. Ekonomia feministari buruz, epe motzean ere aukera batzuk ikusten zaizkio, zaintzaren garrantziaz edota pertsona erdigunean behar duen antolaketa sozioekonomiko baten beharrari buruzko kontzientziazioa areagotu egin delako azken aldian, eta pixkanaka jokamolde indibidualen aldaketak bada-toz. Baina bestalde mundu ekonomiko-enpresarialaren antolatze eta egituratzeari dagokionez, ez dago aldaketa nabarmenik. Horrek nabari jartzen du zein beharrezkoa den alor honetan ere botere publikoen laguntza konprometitua.
- Guztion Onuraren Ekonomiaren ikuskerak indar handia du, baina zaila da praktikan jartzen, *establishmentak* nekez utziko baitu gauzatzen ekonomia horrek boterearen banaketan proposatzen duen aldaketa (justizia eta demokrazia handiagoa). Bestalde, ekonomia horrek enpresa-portaera du ardatz, eta dohain handitzat hartu behar da.

3) **Ekonomia Kolaboratiboa (sharing)** = Eredu honek garapen izugarria izan du azken urtetan, teknologiaren garapenarekin batera eta bereziki belaunaldi berrien bultzadaz. Eredu honen inguruan ere hainbat hausnarketa egin ziren:

- Eredu horretan, irabazi-asmoko jardunbide merkantilistak ez ezik, baliabideak partekatze eta erabilerak optimizatzeko asmoan oinarrituta dauden eta zentzu komunitarioagoa duten beste eredu batzuk ere baditugu. Nolanahi ere, ahalmen handiko elementu bat dakar eredu horrek, hots, “jabetza” kontzeptutik “erabilera edo erabilgarritasun” kontzepturako trantsizio-prozesua. Horrela, beraz, baliabide materialen eta energiaren erabilera murriztea errazten du. Hala ere, aipatu zen oraindik ere erabileraren kultura gehiago sustatu behar dela.
 - Ekonomia Libre eta Irekiak, P2Pak eta Procomún sareak sareko jakintzan eta gaitasunetan, azpiegitura libreetan eta kokatutako produkzioan oinarritutako produkzio-ereduaren aldaketa bat proposatzen dute.
 - Eredu honen ahulezi nagusia desregulazioa da. Hala ere hori ez du oztopo bat izan behar. Honek frikzioak sortzen ditu: sektore arautuen ahultze bat, desregulaziorantz jotzea, lan baldintzen prekari-zazioa.... Planteatzen da gatazka horiek mugatuagoak izango liratekeela jokabide kolaboratibo horien euskarriak lurraldean txertatuagoak baldin badaude, adibidez: zerbitzu kooperatibo lokalak eta plataforma teknologiko lokalen garapenaren bidez. Edozein kasutan, iritzi orokorra izan zen administrazioak, erregulazioak eta arauak sortu arte, egiten utzi beharko lukeela, eredu hauen garapena oztopatu gabe.
 - Antzematen den beste arrisku bat estandarizazio/monopolioruntz joatea da, produkzioa esku gutxitan geratuz.
 - Jokabide kolaboratiboak aisialdiari loturiko jardueretan bai baina hortik harago eramateko orduan izan daitezkeen zailtasunak
- 4) **Ekonomia digitala:** dudarik ez dago izan duten eta izango duten inpaktoaz, teknologia transbertsal bezala (beste modeloak existitzea errazten dute). Baina honek bi arazo sortzen ditu eta herrialde bezala, prest egon beharko ginateke ekonomia digitalaren aurrean posizio bat hartzeko:
- Boterea enpresa handi batzuetan geratuko da eta guk haien produktuak eta teknologia horien kontsumitzaileak izango gara. Honek aberatsen eta atzean geratzen direnen arteko etena handituko du.
 - Garatuagoak dauden herrialdeetan ekonomia digitala / software-ean oinarritutako teknologiak kontsumitu ahal izateko, hardware-a ere behar da (ordenagailuak adibidez), eta hardware hori garatu gabeko edota garapen bidean dauden herrialdeetan ekoizten da (explotazio egoeretan, kutsadura handiagorekin etab.). Beraz, mundua mundo-sistema bezala hartzen badugu (normalean bakarrik sistema lokaletan fijasen gara), jasangarritasunarentzat mehatxu bat izan daiteke.

Bateraezintasunei buruz

Bateraezintasun handiena ikuskera desberdinen haritik proposatzen diren aldaketen intentsitatean legoke, edo beste modu batera esanda, noraino ulertzen duen eredu bakoitzak sistemaren eraldaketaren beharra. Ikuskera batzuek sakoneko aldaketak eskatzen dituzte, beste batzuek aldiz azalekoagoak. Horrela, alde handia nabari da erreformisten, eta disruptibo edo fundatzaileen artean. Zentzu horretan, izan dezaketen aplikagarritasunari buruz, azken hauek zailagoak antzematen dira (mundua ulertzeko begirada aldaketa bat eskatzen dute, gizartearen jokamoldeen aldaketak eragingo lituzkeenak, osotasunean). Eta, aitzitik, erreformista deitutakoak bideragarriagoak ez ezik ezinbestekoak lirateke egungo sistema ekonomiko sozialaren funtzionamendurako.

Zentzu honetan eztabaida oso aberatsa izan zen, eta ideia nagusiak ekarriko ditugu txosten honetara:

- Kontuan eduki behar da ekonomia berri hauetan diharduten enpresek laguntzak/subentzioak jasotzen dituztela, hau da, ekonomia “zaharretik” sortu diren mozkinetatik bildutako dirua jasotzen dute. Beraz, momentuz ekonomia zaharrak ekonomia berria sustengatzen du, horrek sortzen dituen kontradikzio guztiekin: auto-sustengarriak al dira eredu berri hauek?
- Bi ekonomiak (zaharra eta berria) elkarbiziko dute etorkizunean, batez ere kapitalismoak duen resilienziari esker. Lehen, bi eredu kontrajarriak zeuden (merkatu-ekonomia eta ekonomia planifikatua), baina gaur egun nahiko argi dago merkatu ekonomiak irabazi duela borroka, batez ere produkzioan jarri duela fokoa, planifikatuak berriz mozkinen banaketan. Hori kontuan hartuta, ekonomia berri hauek merkatu-ekonomiaren sistema kapitalistaren alternatiba suposatzen dute.
- Beste iritzi bat da kapitalismoa ideia hauek xurgatzeko gai dela, bere negozio ereduak aplikatuz (adibide bat Airbnb izango zen eta beste bat *car sharing*-ean aurkitzen da: alternatiba bezala jaio zen ideia ta orain marka gehienek bere *car sharing* zerbitzu propioa daukate). Beraz, ekonomia berriak “aterpe” ekonomietan bihurtzeko arriskua daukatela komentatu zen, hau da, sistema ekonomiko paralelo batean edo herrien alternatiba batean (bizirauteko), kapitalismoari ihes egiteko, baina kapitalismoarentzat arrisku bat izan gabe.
- Eredu hauek ekintzailtza mota berri batera eramaten gaitu, behar bada saltzen gaituztenarenaren ezberdina, baina duinagoa. Bere garaian kooperatibak sortu ziren moduan, behar bada gaurko gazteek ekonomia berrietan kokatzen diren eredu berritzaileak sortuko dituzte.
- Parametro berriak sartu behar dira: pertsonak eta balioak ardatz izango dituzten eruedetara jo beharra dago, eta aurrezpenari eta lankidetzari lotutako gizarte-alderdiak neurri handiagoan kontuan hartuko dituzten soluzioak bilatu behar dira. Bat egiteko joera eta Ekonomia Alternatibo Komunaren bilaketa. Legerian eta zerga-tratamenduan kapitalismoa eraldatu eta paradigma horietarantz bideratzeko babes bilatzea. Ildo horretan, bateragarriak izan daitezkeen, beste ekonomia mota baterako trantsizioa eragingo duten eta kapitalismoa erdibidera eramango duten Ekonomia Pluralak aipatu ziren.
- Proposatutako eredu bakoitzaren atzean nor dagoen eta zer interesi erantzuten dien (korporazioei, kontsultoretza-enpresei, lobbyei, Europako politikari, “bottom up” gizarte-mugimenduei...) jakin behar da, tolesgabetasunez ez jokatzeko.

- Ereduen balio diferentzialaren inguruko proposamenak aztertu behar dira (ekonomia berdearen, urdinarren, zirkularraren eta onbideratzailearen arteko desberdintasunak, adibidez), arreta non jartzen duten kontuan hartuta (esate baterako, Guztion Onuraren Ekonomia edo Inpaktu Ekonomia adierazle- eta ebaluazio-sistemak dira nagusiki, berezko ekonomia-ereduak baino gehiago).
- Zenbaiten ustez, mugimendu horiek porrot egingo dute. Izan ere, oso indar txikia dute eta ez dira gai ekonomia eraldatzeko
- Halaber, aipatu denez, “baliabideen urritasuna ez da erabat barneratu”. Hau da, ez dago frogatuta faltako direnik, eta gauza erreala den planteatu da. Amaitzen ari dena errenten igoera dela adierazi da.

ESPERIENTZIA PRAKTIKOEI BURUZ

Zure ustez, zein ekarpen egiten dute esperientzia hauek gure ekonomian? Uste duzu praktika hauek aplikagarriak direla beste sektore eta enpresa batzuetan? Ze aukera aurreikusten duzu?

Ondorio nagusiak

Mintegian azaldutako esperientziak egiten duten ekarpen nagusia, inspirazio iturri moduan duten funtzioa dela baieztatu zen mahai askotan. Oso erabilgarriak dirudite orokorrean, bide dominante nagusitik harago beste bide eta modu alternatiboak badaudela agerian jartzen dutelako. Batetik, helburuari buruz, lehengo ataleko erantzunen ildotik, sistema kapitalistak egun sortzen dituen desoreka edo akats batzuk zuzentzen lagun dezaketen ekimenak izan nahi dutelako (beste kontu bat da zein puntutaraino diren paliatiboak edo benetan sakoneko aldaketen zuzentzaileak). Eta bestetik, adibide errealak direlako, ez soilik teorizatutako baina inon aplikatu gabeko proposamenak. Horregatik esperientziak eredu bihurtzea oso inportantea dela baieztatu zen (hots, ondo funtzionatzen duten ekimenak, denboran iraun ez ezik denborarekin zabaltzen eta hobetzen doazenak).

Azpinarragarri moduan behetik gora azaleratzen ari den sentsibilitate baten emaitza direla aipatzen da; eta denborarekin horrelako esperientziak ugartzen ari direla.

Mintegian partaideek azaldutako esperientziei buruz mahai gaineratu zituzten iruzkinak, ikuspuntu berri-zaile batetik kontserbadore batera joan ziren, eta adibide gisa, behekoak aipatu daitezke:

- Eredu berrien beharra dago eta egongo da. Hori dela eta, ikerketa bultzatu, bitartekoak jarri, eta modeloen dimentsionamendua bilatu behar da.
- Esperientzien partekatzea falta da. Sareak sortu behar dira esperientziak guztiak partekatzeko.
- Ditugun erronka itzelen aurrean (ekologikoa, lanarena, desberdintasunena...) esperientzia hauek hazi bat sortzen dute. Alternatibak eraikitze beharra dago.
- Eredugarriak dira. Impakto "txikia" duten esperientziak dira, baino eredugarriak, sinisgarritasuna ematen dute. Balio dute esateko posible dela.
- Orokorki taldeetan adostasunez uste zen beste sektore eta enpresa batzuetan aplikagarriak direla, baina malgutasunez, egiteko modu desberdinak erabiliz kasu bakoitzean, dauden errealitate produktibo eta enpresarialetara egokitzeko, moldatzeko. Azken finean, eraldakuntza sakonak dakartzaten paradigma berriak izan, edo proposamen erreformistagoak izan, denek eraikitzen dira edo ardatzen dira balore berri batzuen gain. Eta balore horiek dira edozein eremu eta arlotan aplikagarriak direnak.

Gainera, **praktika hauek, beste sektore eta enpresatan aplikagarriak eta eraginkorrakoak izateko, beheko ideiak beharko lituzketela adierazi zen:**



- Dimentsionamendu haundiagoa.
- Logjika horizontalean eraikitzea.
- Eskualde enfokea, enfoke integrala. Lurralde batean behar guztiak asetzen dituen “alternatiba” eraikitzea. Sektore desberdinak integratzea ereduetan.
- Saretzea. Esperientziak partekatzea.
- Mota honetako ekimenak ugartzen joatea. Horrek agerian jartzen du gero eta handiagoa den sentsibilitate bat garatzen ari dela eredu berri alternatibo hauen egokitasun eta potentzialtasunaren inguruan, baina oraindik ez dela beharrezko jauzia egin benetan gizartean eta ekonomian esanguratsua izateko adierazi zen. Jauzi hori gertatu dadin, funtsezkoa ikusten da erakunde publikoen inplikazioa eta aitzindaritzza; beti ere ekimen pribatuen eta instituzioen artean erlazioa orekatu batean.
- Azaldutako ekimenen atzean dauden baloreak unibertsalak izanik bizitzaren edozein esparrutan sar daitezkeela aipatu zen, enpresa munduaz harago: familia, politika, harreman sozialak... Eta horrela ere balore hauek gure baitan sartzen ditugun heinean errazago eramango ditugu arlo produktibora, enpresa mundura.
- Oro har, belaunaldi berrien heziketaren bidez kultura-aldaketa sakon bat egin behar dela geratu da agerian hainbat mahaitan. Aipatu denez, aldaketa hori hezkuntza-sistemak eta unibertsitateak egin beharko lukete ikerketa-mailan, ekonomia berriak –edo berriek– beharko dituen profesionalen enplegagarritasuna baloraturuz. Hala ere, batzuen ustez unibertsitatea ez da, pizgarrien sistemagatik eta aldaketei aurre egiteko joeragatik, agenterik egokiena, eta agenteen arteko baterako sorkuntza-prozesu bat beharko litzateke. Aipatu denez, **EUSKO IKASKUNTZA** izango litzateke, bere izaeragatik, agenterik aproposena adostasun-rol hori betetzeko, duela 100 urte izan zen bezalaxe.

Zailtasunak

- Aurkeztu ziren esperientziak ikusita badirudi zailtasun bat egon daitekeela eredu hauek ekonomiako “gune gogorrera” trasladatzeko.
- Aipatu denez, zaila izango jasangarritasun-balioak biltzen dituzten proposamen asko industria-enpreetan aplikatzea eta enpresa horiek lehiakor izaten jarraitzea. Izan ere, produkzio-jarduera gutxieneko kostuaren printzipioan oinarrituta dago nagusiki, eta hori ez dator bat balio berriekin.
- Uste denez, banaketa-kanal laburrak ez dira BPGaren % 2ra iritsiko etorkizunean, eta hori ez dator bat herrialde batek sortu behar duen aberastasunarekin.
- Zenbaiten ustez, gaitzesgarria da korporazio batzuek ekonomia zirkularrarekin identifikatzen direla eta berdeak edo ekologistak direla esatea. Dena beti kapitalaren onurarako dela kritikatu da, eta ereduak berak –bidegabea izaki– dakarren indarkeria estrukturala salatu da, baita erakunde jakin batzuek pertsonekin agertzen duten portaera ere, elkarrizketa eragozten duen desoreka bat eragiten baitute. Hori dela-eta, ereduak berak bere indarkeria-maila murriztu beharko lukeela iradoki da, era horretan harmonia handiagoarekin bizi ahal izan dadin.

Geroago, kanporatutako **eredu hauek aurreikusten dituzten aukerei buruzuko galderari dagokionez**, hurrengo proposamen konkretuak azaleratu ziren:

- Zirkulartasunaren antzeko kontzeptu bat garatzea hezkuntzaren inguruan proposatu zen (hezkuntza - lana - ezagutza - jakintza eta eskarmentua bezalako elementuak konbinatuz).
- Enpresa edota erakunde publikoetan, zaintzak eta pertsonak zentralitate gehikorra hartu ahala, funtzionatzeko era berriak, demokratikoagoak, garatzen joateko bidea lantzea (harreman ez hain hierarkia-koak, kiden arteko gatazkak hitz egiten konpontzeari garrantzia emanez etab.)
- Adimen artifizialak etorkizun hurbilean ekar ditzakeen aukerak baliatzea: adierazi denez, balio-trukerako sareak sortu eta pertsonen arteko transakzioak erraztu ahal izango ditu aurki adimen artifizialak. Era horretan, bakoitzak gutxien garatuta dituen gaitasunak osatu ahal izango ditu. Adimen artifizialak jakintzak eta pertsonak lotu ahal izango ditu, eta balio handiagoa emango dio lankidetzarenarekin bat datorren gauzak egiteko modu horri.

Eta azkenengoz eredu berri guztiak kontutan izan beharko lituzketen zeharkako faktoreak ere aipatu ziren:

- Alde batetik ekonomia jasangarri, kolaboratibo honen garapenerako eremu oso inportante eta egokitzat jotzen da **etxebizitzarena**, duen potentzialtasunagatik eta dauden aukerengatik, herritarren ohiturak aldatzeko, esku-hartze publikoak pizgarriak emateko, aitzindari izateko etxebizitza publikoaren kasuan, etab.
- Eta bestetik, **biztanleriaren piramideari** erantzun bat ematen ari zaiola bermatzea, Euskal Herriak ekonomia horien erantzun bat behar baitu arazo horretarako.
- Halaber, eredu hasi berrietan **Estatu-Nazioaren** egungo krisirako beharrezkoak diren orekak kontuan hartzea eta tokikoa dena eta globala dena orekatzea proposatu da.

PROPOSAMENAK GURE EKONOMIARENTZAT

Zein ekimen, proposamen eta politikak gauzatu daitezke eredu hauek praktikan aplikatu daitezen?

Hausnarketa orokor gisa, eredu hauek praktikan aplikatu daitezen erakunde publiko eta ekimen pribatuen arteko tentsioaren gaia atera zen behin eta berriz lantaldeetan.

Orokorrean beharrezkoa jotzen da gobernu eta erakunde publikoen parte-hartzea eredu berrien garapena bultzatzeko, lurraldeko agente eta herritarrengandik lortutako ekimenekiko elkarlan-harreman baten bitartez, oreka bermatuz. Eta sektore publikotik eman beharreko bultzada hori ez dadin izan soilik laguntza ekonomikoa, harago joan behar dela aipatu zen, ekimenei prestigioa emanez eta kultura eta balore berri horiek zabalduz, alor batzuetan administrazio publikoa bera eredu izanez.

Eredu jasangarriagoaren alde egiteak produkzio mota batzuetan eta enpleguetan eragin ditzakeen kontrastean eta talkak kudeatzen ere izan beharko luketela paper garrantzitsua erakunde publikoek baieztatu zen. Aipatzeko ere, izan zela sektore publikoa/politika publikoak bultzatzaile ez ezik ekonomia berri horren beste euskarrietako bat izan behar duen aldeko iritzia.

Politika publikoak alde batera utzita, lankidetzaz asko hitz egiten bada ere denon artean dagoena hobetzeko gai ez garela salatu zen. Uste denez, gai izan behar dugu besteak egiten duena ikusi, ulertu eta baloratzeko, horretaz hitz egin eta hobetu ahal izan dezagun.

Taldeetan proposatutako ekintzak, multzo ezberdinetan banatzen dira: alde batetik hezkuntza sistemari eta enpresa ereduari orokorrean dagokizkion ekintzak, bestetik talde bakoitzak hautatutako ereduaren inguruko proposamenak, eta azkenengoz bultzatu beharreko politika publikoak:

Hezkuntza sistemari lotutako ekintzak:

- Baloreen aldaketa eta eraldaketa bat proposatzea eta lantzea.
- Hezkuntzaren eraldakuntza orokor bat sustatzea: Lehen hezkuntzatik unibertsitateraino eredu hauetaz hitzegitea, eredu teoriko hauek erakutsi eta ekintzailletza soziala sustatu.
- Hezkuntza ereduaren humanismoa berreskuratu.
- Kontzientziazioa landu, horretarako dauden eta sortzen ari diren esperientziak gizarteratuz, eta adibide errealek jendartera helaraziz.
- Perfil profesional ekintzaileak garatu.
- Komunikazioa: Ereduak eta esperientziak ezagutarazi eta zabaltu.
- Gaur egun ekonomiari lotutako hezkuntzak beste ekonomia mota batzuen inguruko gogoeta eragiten ez duenez gero, prestakuntza-curriculumetan beste ikuspegi batzuk txerta daitezke bultzatu.

- Iniziatiba berrientzako/alternatibentzako dirua jarri: dirua badagoela baina falta dena idei berritzaileak direla komentatu zen, beraz, hezkuntzan egon daiteke klabea
- Unibertsitateetan autonomo izateak lanbide-aukera gisa dituen aukeren inguruan neurri handiagoan kontzientziarazi.
- Ikerketa bultzatu, arlo guzti hauetan.

Enpresaren arloari lotutako ekintzak:

- Ekintzailletza soziala eta sormena sustatu enpresa biberetan. Enpresak sortzeko ekosistemetan, modu jasangarri eta berritzaileak proposatu.
- Enpresa eredu arrakastatsuetatik eta porrotetatik ikasi.
- Biziraupen ekonomikoa xede duten enpresei zerga-saria eman, egungo ekonomiaren % 80 espekulazioan oinarrituta dagoela kontuan hartuta.
- Gazteentzat erakargarria izango den enpresa-sare bat sortu.
- Talentuaren atxikitzea sustatu.
- Adierazle berriak sortzeko gai izan. Ekonomia berrien ezaugarriak aintzakotzat hartu eta neurtu ahalko dituzten adierazle ekonomiko berriak garatu, ezagutarazi eta aplikatzea.
- Ditugun ereduak balioan jarri: Kooperatibak, Garapen Agentziak, Hezkuntza...
- Hau bezalako (Eusko Ikaskuntza) elkarlanerako espazioak mantendu eta sare berriak sortu baino kalera irtenda (komunikazio eta inpakto gehiago edukiz)
- Enpresa-ekimen eta esperientzien artean elkarlana sustatu, eraginkortasun ekonomikoagatik edota proiektio bateratuak izan dezakeen garrantziarengatik.
- Aurrekoarekin loturik, inportantea da proiektu eta ekimeneke dimentsio nahikoa eta eraginkorra lortzea, bere sinesgarritasuna handitzeko eta sendotzeko. Halaber, zailago izan daitezkeen sektoretan ere pixkanaka txertatzen joatea.
- Dibertsifikatu, apustu guztiak 4.0 industriari soilik zuzendu ez daitezen.
- Legeak egin, gauza jakin batzuk borondatearen esku utzi gabe (enpresaren gizarte-erantzukizunari lotutako politikak, giza eskubideak eta abar).

Gizarteko agentei orokorrean dagokizkion ekintzak:

- Kontsumo-ondokoaren inguruko erantzukizun propioa sustatu.
- Koherentziarik ezak agerian utzi eta herritarrak gai horien inguruan sentsibilizatu.
- Enplegua ekonomiaren egitura-ardatz gisa zalantzan jarri eta gizabanakoen gizarte-balioa neurtzeko beste modu batzuk bilatu.
- Erakundeei politiketan koherentzia eskatu (erosketa publiko arduratsua eta abar).

Eta azkenengoz, bultzatu beharreko politika publikoak:

- Energia eta politika publikoak bermatu, ez dirua bakarrik. Administrazio publikoak praktikak martxan jartzeko babesak eman behar duela ulertzen da.
- Ingurugiroarekin zerikusia daukaten politikak bultzatu.
- Administrazio Publikoa - Enpresak - Gizarte zibila = Hiru zutaberen arteko uztardurak eta elkarlanerako tresnak garatu
- Ondasunen banaketarekin zerikusia daukaten praktikak martxan jarri, justicia/injusticia terminoen transformatzearekin kontuz eukiz.
- Denboraren erabilera inzentibatu: daukagun aktiborik garrantzitsuena denbora izanda, honetaz konturatu eta guretzat/familiarentzat denbora gehiago eduki eta lan gutxiago egin.
- Garapen agentziek rol klabea euki dezaketen eredu berriak bultzatu. Azaro Fundazioaren adibidea erreplikatu, errealitateak gertuago egonez dituzten agentzia eta infrastrukturen bidez.
- Ekonomia berrien eremuan eta norabidean kokatzen diren enpresei (zentzu zabalean ulertuta, elkarte, fundazio eta abarrak ere hartuta): pizgarriak eman (fiskalak, finantzarioak); kontratazio publikoan edo diru-laguntzetan irizpide positiboak ezarri.
- Eraldatzeko edo ekiteko oinarritzko errenten edo errenta unibertsalen eredu alternatiboak ezartzearen bideragarritasuna aztertu (pizgarriak, baldintza samurrak eta abar).
- Administrazio publikoen aitzindaritzak bermatu, bere funtzionamendu, ekimen eta erabakietan ekonomia berriekin bat egiten duten balore eta irizpideak barneratuz.

Azkeneko hausnarketa moduan aipatu zenez, etorkizunera begira paradigma aldaketak lortzekotan ezinbestekoak bihurtuko direnak, legedi mailan egin beharreko moldaketak izango dira.

Argi dago lege ezartzeak pisu handiagoko esku-hartzea eta konpromisoa adierazten duela. Halere, normalean lege-esparruak derrigortasun eta ezinezkotasan batzuk ekarri ohi dituzenez kontu handiz eta une egokian inplementatu beharko dira honelako neurriak, gizartean adostasun maila onargarria ziurtatzeko. Bitartean, ildo horretan, borondatezko proiektu eta ekimenei bultzada handia ziurtatu beharko litzaieke, gorago aipatutakoaren ildotik.

Edozelan ere, politika zein proiektu hauen guztien garapena erraztuko luketen beste bi elementu aipatu ziren: burujabetza ekonomiko nahikoa (enpresa eredu propioak, lan harremanak, politika energetikoa,...) eta bai arlo pribatuan bai arlo publikoan funtzionamendu, parte-hartze eta erabakitzerako egitura partizipatiboak, demokratikoak, hartzen diren norabide eta erabakietan kide denen interesen presentzia eta garrantzia orekatuagoa ahalbidetzeko.

Azkenik, Euskal Herrian honelako ereduaren garapenerako oinarri egokia badaukagula aipatu zen: auzolanaren kultura eta ekimenak, mugimendu sozial eta asoziatibo aberatsa, kooperatiben mundua eta mugimenduaren sustraitze eta errealitatea (nazioarte mailan erreferentea dena). Hori aprobetxatu beharko dela norabide egokian jarrita baieztatu zen.

Horri buruz, batzuetan Euskal Herrian zorrotzeak garelako gurearekin, eta sarritan esperientziak baloratzeko orduan kontraesanei begiratzen diegula eskaintzen duten alderdi positiboak baino gehiago aipatu zen.

Kontuz ibili beharko ginateke gehiegizko “purismo” horrekin, izan ere eraman gaitzakeelako eredu berriekin bat etorri daitezkeen ekimen asko baztertzera, izan dezaketen potentzialtasun eraldatzaile/berritzailea gutxietsiz. Horrek ez du esan nahi dena balekoa denik, jakina, baina kontraesanak eta abantailak, denak hartu beharko dira aintzakotzat ekimenen izaera eraldatzailearen balorazioa egitean; soilik balorazio zintzo eta zuzen batek eman bait dezake oinarri egokia etorkizunera begira eta hobetzeko asmoz hartu beharreko neurriak identifikatzeko